



ANA TELLERIA, OGASUN BATZORDEBURUARI

2022 TASA ETA ZERGA PROPOSAMENAK

EH Bilduk, Udal Gobernuaren zergak izoztearen proposamenaren aurrean, hurrengo proposamenak aurkezten ditu aintzat hartuak izan daitezen:

Eibarren, 2021eko irailaren 9an

Izp.: **Gorka Errasti Bernedo**
Eibarko EH Bildu udal taldea

1. Ondasun Higiezinaren gaineko zerga: ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezinaren zerga kuotaren erretegia indarrean mantentzea Eusko Jurlaritzako 149/2021 Dekretuan, ekainaren 8koa, jenderik gabeko etxebizitzetara eta etxebizitzaren funtzio soziala betetzeko neurrietara buruzkoa, jasotako kanona indarrean jarri arte.

Eusko Jurlaritzako Lurralde plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 149/2021 Dekretua argitaratu du. Bertan, jenderik gabeko etxebizitzak merkaturatzeko ezarri ahal izango zaien kanonaren berri ematen du.

Udal Gobernuak kanon honen aplikazioaz, prozedimenduaz eta espedienteen arduraz ez du inolako azalpenik eman eta zuzenean Eibarko Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren jasota dagoen ohiko etxebizitza ez diren etxebizitza hutsei aplikatzen zaien OHZ erretegia bertan behera uztea planteatzen du. Gainera, Eibarko Ordenantza ez da 149/2021 Dekretuan jasotako kanon berriaren aipamenik egiterik planteatzen.

149/2021 Dekretuak dio ordea, kanona aplikatu ahal izateko, etxebizitza 2 urte jarraian egon behar dela hutsik.

Jurlaritzak planteatzen duen kanona batu ahal izan arte, etxebizitza hutsean gaineko erretegia mantentze honek proportzionaltasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak beteko lituzke, zalantza juridikoz betetako bi urteetako epea ekidituz. Gainera, aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasun printzipioak ere beteko lirateke, 50.000-60.000€ batzeko ahalmena izango duelako Udalak datozen bi ekitaldietan. Gardentasun printzipioa jarraituz, Udalak aldaketa proposamen hau argitaratuko du informazio publiko bitartez.

Beraz, **Ondasun Higiezinaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalean ohiko etxebizitza ez diren ondasun higiezinaren zerga kuotaren erretegia indarrean mantentzea planteatzen dugu, bi urte barru 149/2021 Dekretuan jasotako jenderik gabeko etxebizitzaren gaineko kanona aplikatu ahal izan arte.**

2. **Ondasun Higiezinaren gaineko zerga: 2022ko aurrekontuari begira, Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga ordaindu ahal izateko dirulaguntza ildo sortzea.**

Udalerrri batzuetan indarrean daude dirulaguntza ildo hauek. Zerga justuenak pertsona bakoitzak bere dirusarreraren arabera ordaintzen dituenak izango lirateke, baina oraindik ezinezkoa da horrelako ordainketarik egitea, Arau Foraletan aldaketa sakonak egin ezean. Beraz, OHZ ordaindu ahal izateko dirulaguntza ildo martxan jartzea planteatzen dugu, 2022ko Aurrekontutik aurrera. Dirulaguntza berri honek egoera zaugarrienean dauden familia eibartarrek udal zerga handiena ordaintzen lagunduko luke.

Nahiz eta zehazki tasa aldaketa proposamen bat ez izan, egokia deritzogu dirulaguntza honen beharraz orain aritzea, OHZren dirubilletan eragina izango lukelako datozen urteetatik aurrera. Premia printzipioa betetzen du, hainbat eibartarrek zailtasunak dituztelako ohiko gastuen ordainketak egiteko, OHZ barne eta dirulaguntza honek gastu horiek arinduko lituzkelako. Segurtasun juridikoa ere guztiz betetzen, hainbat Udalek horrelako dirulaguntzak aspalditik martxan jarri dituztelako. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasun printzipioak beteko lirateke Udalak indarrean dituen dirulaguntza guztien berrikuspen integrala egingo balitz.

Ondoko taula aplikatzea planteatzen dugu, Pasaiaiko Udalean aplikatzen dena (bertan, 2009an sortu zuten dirulaguntza ildo):

Kideak/ Miembros	<= LGS/SMI	<= LGS/SMI + %10	<= LGS/SMI + %20	<= LGS/SMI + %30	<= LGS/SMI + %40	<= LGS/SMI + %50	<= LGS/SMI + %60
1-2	% 90 90 %	% 85 85 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %		
3	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %	
4	% 90 90 %	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %	% 25 25 %
=> 5	% 95 95 %	% 90 90 %	% 90 90 %	% 85 85 %	% 80 80 %	% 75 75 %	% 50 50 %

Pasaiaiko Udaleko dirulaguntzari buruzko informazioa esteka honetan: <https://www.pasaia.eus/documents/90521/3034910/Normativa+de+Subvenciones.pdf>

3. Diru iharduera zerga: enplegua sortzeagatik jaso ahal den hobarian aldaketak egitea.

Hobari bakarra dago jasota Eibarko Diru Iharduera Zerga arautzeko Ordenantza fiskalean. Enplegua sortzeagatik eskaintzen dena, hau da, enpresek lan-kontratu mugagabea duten langileen kopurua handitu badute aurreko urtearekin alderatuta.

Hobarian aldaketak egitea planteatzen dugu. Batetik, hobaria jaso ahal izateko ehunekoen tarteak txikitzea, jakin badakigulako urteetan lotu ditugun krisialdiek enplegua sortzeko zailtasuna areagotzen dituztelako. Eta bestalde, garrantzitsua delako enplegu mota bat edo beste sortzeko esfortzua saritzea. Emakume, gazte edo lan merkatuan txertatzeko zailtasunak dituzten kolektiboen enplegua handitzeko ahalegina egin badute enpresek, hobarian ere isla izan behar du horrek. Kolektibo hauek dira langabezi tasa altuenak pairatzen dituztenak eta.

Premia eta efikazia printzipioa betetzen du proposamenak, bizi dugun krisialdian enplegua sortzea saritzen duelako, ez edozein motako enplegua gainera, premia gehien dituzten kolektiboen kontratazioa sustatzen duelako. Segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen du, hobari hau 1/1993 Foru Dekretu Arauemailean, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzen duena, dagoelako jasota. Gardentasuna ere bermatuta egongo litzateke, Udalak aldaketa proposamen hau argitaratuko duelako informazio publiko bitartez.

Beraz, **enplegua sortzeagatik indarrean dagoen hobaria, ondoko taulan jasota dagoen hobari proposamenagatik aldatzea proposatzen dugu:**

Lan-kontratu mugagabea duten langileen kopurua handitzea	Hobaria (%)	Kontratuen %60 edo gehiago emakumeentzat (Hobaria %)	Kontratuen %30 edo gehiago 30 urte baino gazteagoentzat edo lan merkatuan txertatzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzat (Hobaria %)
%0,1etik %5era	10	15	15
%5,01-%10	20	25	25
%10,01-%15	30	35	35
%15,01-%20	40	45	45
%20tik gora	50	50	50

4. Diru iharduera zerga: industria jarduerak hirigunetik industria poligonoetara eramateagatik hobaria sortzea.

1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzen duenak, Eibarko ordenantza fiskalean jasota ez dauden hainbat hobari ezartzea ahal bideratzen ditu.

Eibarko hiriaren egitura urbanistikoak hirigunean industria jarduerak etxebizitzekin batera egotera bideratzen du. Maila baxuko ekonomia jarduerak elkarbizitza errazagoa dute etxebizitzekin, industria jarduerak ordea, hiriko periferietako industria poligonoetara mugitzea komenigarria da.

Premia eta efikazia printzipioa betetzen du proposamenak, Eibarko hiriaren eraketan lagunduko lukelako, industria jarduerak hirigunetik aterata eta oraindik herrian hutsik ditugun poligonoak betez. Segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen du, hobari hau 1/1993 Foru Dekretu Arauemailean, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzen duena, dagoelako jasota. Gardentasuna ere bermatuta egongo litzateke, Udalak aldaketa proposamen hau argitaratuko duelako informazio publiko bitartez.

Gauzak horrela, ondoko hobari berria sortzea planteatzen dugu:

“Subjektu pasiboek udal kuotaren %50eko hobaria jasoko dute Eibarren kokaturiko hiri-industria izanik, euren jarduera hirigunetik udalerriko industria poligonoetara eramaten badute. Hobari hori jarduera toki berrian hasten duten ekitaldiaren hurrengoan izango dute, eta bost urtean ere izan dezakete.”

5. Diru iharduera zerga: hobaria izatea, jardueratik lortutako errenta edo etekin garbia negatiboa bada.

1/1993 Foru Dekretu Arauemaileak, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzen duenak, Eibarko ordenantza fiskalean jasota ez dauden hainbat hobari ezartzea ahal bideratzen ditu.

Lehen esan bezala, gainera, hainbat krisialdi ekonomiko bizi ditugu jarraian eta ekonomia iharduerak beraien errentetan gora behera handiak izan ohi dituzte.

Premia eta efikazia printzipioa betetzen du proposamenak, bizi dugun krisialdian norbanakoez gain, jarduera ekonomikoek ere zailtasun handiak pairatzen dituztelako. Ez da justua gainera, etekin garbia negatiboa dutenean, diru iharduera zerga kopurua berdina ordaindu behar izatea eta hobari hau indarrean jartzen bada, Udalak begirunea izango luke ekitaldi txarra izan duten jarduera ekonomiko ezberdinekin. Segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen du, hobari hau 1/1993 Foru Dekretu Arauemailean, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Testu Bateratzailea onartzen duena, dagoelako jasota. Gardentasuna ere bermatuta egongo litzateke, Udalak aldaketa proposamen hau argitaratuko duelako informazio publiko bitartez.

Gauzak horrela, ondoko hobari berria sortzea planteatzen dugu:

“Kuotaren %50eko hobaria, subjektu pasiboek gutxieneko udal kuota ordaintzen dutenean eta hobaria aplikatu aurreko lehen zergaldian jardueratik lortu duten errenta edo etekin garbia negatiboa denean.”

6. Alkatetzaren Coliseo Antzokian zine komertzialeko zerbitzua emateagatiko tasa proposamena: Coliseoaren Laguna txartelarekin sarrerak gehitzea.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailean Zinema Komertziala azpiatala gehitzea proposatzen du Alkatetzak. Zinema komertzialaren ustiapena Udalak egitea planteatzen delako hemendik aurrera.

Hiru sarrera mota planteatzen dira bertan: Sarrera arrunta (5,5€), Ikuslearen eguna (4,00€) eta larunbat eta igandeetako lehen saioetako umeendako sarrera (4,00€). Plegu bidez enpresa pribatu batek egiten zuenean zinema komertzialaren ustiapena Coliseoaren Laguna txartelarekin erositako sarreraren prezioa ere zegoen aurreikusita. Azpiatal berrian mota horretako sarrerak gehitu behar direla uste du EH Bilduk.

Premia eta efikazia printzipioa betetzen du proposamenak, zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailean Zinema Komertziala azpiatala gehitu behar bada, sarrera mota hauek gehitzea falta delako, are gehiago, azpikontratatzeko pleguetan horrela jasota zegoela ikusita. Gardentasuna ere bermatuta egongo litzateke, Udalak aldaketa proposamen hau argitaratuko duelako informazio publiko bitartez. Aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasuna ere bermatuta egongo litzateke, orain arte, sarrera mota hauek kontutan hartzen zirelako eta ustiapenaren titularitatea da aldatuko dena, besterik ez.

Beraz, ondokoa da gure proposamena: **“Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailean Zinema Komertziala azpiatalaren barruan prezio berri bat gehitzea: Coliseoaren Laguna txartelarekin erositako sarreraren prezioa – 4,00€”**